

Onintza Enbeitak Julen Arexolaleiba elkarrizketatu du Hitzetik hortzera saiorako

2009/03/23

Eitb.com webguneak sarean ipini du Onintza Enbeita bertsolariak Julen Arexolaleiba EKT ikastaroko koordinatzaileari egindako elkarrizketa Hitzetik hortzera saiorako.

Elkarrizketa Huhezin grabatuta dago, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko klaustroaren erdian, 8 minutu dirau, neurri egokia Interneten ikusteko, eta gustura ikusten da, tarteka **argazki mordoa eta bideo zatiak** erakusten baititu, Julenek azken hiru urteotan munduan zehar egindako bidaian egindakoak.

Bertsolaritzaz hitz egiten du Julenek elkarrizketan, **euskal kulturaz**, **EKT ikastaroaren gainean**, eta hiru urtean hortik zehar bizi izan duen **jendearen eskuzabaltasunari buruz**.

